

# noaua

Gipuzkoarren %3,  
odol emaille izateko erronka

Onintze Kamino,  
gidabaimena euskaraz  
ateratzeagatik, saritua

Martxoak 8: "Ezinbestekoa  
da norberagandik hastea  
eraldaketa"

Herria hankaz gora  
jartzera dator

## Inauteri Jaia





antenas  
**Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.  
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99  
info@antenastelemar.com



**ETA ORAIN...  
IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)  
**PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)**

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

**ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA**

**188.000 € tik**

**12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi,**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

**VIVIENDAS LANIN S.L.**

Lazkano Pasealekua, 1ª Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste iruditan

# Errepikatze moduko irteera



Igandean, lagun ugari batu ziren NOAUAk antolatu zuen irteeran.

**B**errogeitik gora lagun bildu zituen NOAUA! Kultur Elkartek joan den igandean antolatu zuen txangoan. Aginagako ondarea ezagutzera, bertako errio bazter, baserri, landa inguruetaz zerbait gehiago ikastea zen helburua. Eta azaroan Kulturaldiaren baitan antolatu genuen paseoan gertatu moduan, interesa piztu zuen ibilaldi honek ere.

Ezin zitekeen gehiago eskatu gainera, bildutako herritarren artean giro ederra sortu eta primerako eguraldia egokitu baitzen. Eta beste behin,

Santuenea, Urdaiaga eta Txokoalde inguruetako ondarea ezagutzeko azaroan antolaturiko irteera amaieran esandakoa errepikatu zen; berriz ere, aurrerago, tankera honetako ekimenen bat presatu beharra dagoela. Eta horretan geratu gara. Aurrerago berriz, halako txango bat antolatzeko-tan.

Hitzordua deitzen dugunean animatu beraz, ez baita herritik urrundu behar inguratzen gaituenaz zerbait gehiago ikasteko. Etxean bertan badugu, zer ikusia, zer ikasia, zer baloratua eta zer zain-

dua; galtzen ari den baina guztiz desagertzen ez uztea gure esku dagoen ondare baliotsua.

### Laburbira eta Batzar Nagusia

Aginagako txangoaren ostean, NOAUA! Kultur Elkartetik martxorako antolatu ditugun beste bi ekitaldietan parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu; Laburbira, euskarazko film laburren emanaldiaz gozatu ahal izango duzue martxoaren 20an. Eta urteko ohiko batzar nagusia ospatuko dugu, martxoaren 24an.

## Laburrean

### 1979ko kinto afaria

Martxoaren 8an Urdaira sagardotegian antolatu dute afaria. Izen emateko epea zabalik egongo da, martxoaren 6ra arte, "Errazkin bizikletak" saltokian. Argibideak: 943 576 379 (Arkaitez).

### Odol ematea, martxoaren 3an

Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan. Zehaztasun gehiago, gotatanta.com atarian, edo 943 317 091 telefono zenbakian.

### Mus txapelketa Bentan

Ostiral honetan, otsailak 28. Gaueko 22:00-22:30 artean egongo da izen emateko aukera. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Jarraian jokatu da txapelketa.

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

#### Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregerai eta Udarregi ikastola.


Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Idoia Torregarai

## Doraemonen sindromea

**E**z dakit Euskal Herriko norbait geratzen den Doraemon eza-gutuzenez duenik. Gutxi horietako bat baldin bazara, zorionekoa zu: mantendu birjintasan hori eta ez jarraitu lerro hauek irakurtzen. Gai-nontzekoekin (askorekin ziurrenik) egingo dut aurrera.

5 eta 2 urteko alaba eta semearen ama desesperatua bezala idazten dizuet oraingoan. Zergatik? Honetxengatik: NOIZ ARTE jarraitu beharko dugu 24 orduz katu kosmiko buruhandi hori ikusten? Berdin du etxera zein ordutan iristen

zaren, BETI topatuko dituzu Doraemonen marrazki bizidunak. Ama pedagogikoaren papera hartu eta beste zerbaite ikusi dezaten telebistako "mandoa" hartzen duzunean, ordea, dutxatu berri diren bi Gremly izango balira bezala etortzen zaizkizu gainera, "EZZZZZ, UTZI DORAEMONNNN" garrisika. Erreakzio horren aurrean, eta Job santuak baino pazientzia handiagorekin, MILAGARREN aldiz ikusten dituzu Nobita alferra, Suneo berekoia, Erraldoi diktadorea eta Sisuka tuntunaren gorabeherak.

Baina nor da ETB3ko programazioa diseinatzen duena? Fredy Kruger? Ez al dira konturatzen txikitanguk Dotakon, Arturo Erregea eta Xagu Ausarta ikusi ditugula? Kriteriodunak gara, faborez! Ezin dituzte marrazki horiek berriro bota?

Okerrena, hala ere, pasa den astean parkean nengoela, zera esan zidala alabak: "ama, zu Doraemon bezelakoa zea. Zure poltsatik denetatik ateratzen duzu". Ez du arrazoi faltarik. Izan ere, ama baten poltsan DENETIK topatu baitaiteke. Orain-txe bertan nirearen inbentario bat

egingo balute, hauexek topatuko lituzkete, besteak beste: duela 3 aste hasitako gusanito poltsa, taparik gabeko margoak, esku-pelota bat, merienda-poltsa, Pirritx eta Porrotxen karta-jokoa eta piszinako betaurrekoak.

Akabo. Uste dut azkenen Doraemonetaz mozorrotuko naizela larunbatean. Bai, badakit gaia Erdi Aroa dela, baina konponbide erraza du horrek. Nire poltsa magikotik denboraren atea aterako dut eta mende batzuk atzera egingo dut. RON-PON-PON!!

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | **Idoia Torregarai** | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

## Urko Aristi, TOKIKOMeko lehendakari berria

**P**asa den asteburuan egin zen TOKIKOM elkarteko Batzar Nagusia. Tokiko hedabideen elkarte honen kide da sorreratik NOAUA!. Mikel Irizar bi urtez izan da bertako presidente, eta orain Urko Aristi hartuko du gidaritza, Aretxabaletan egin zen batzarrak hala erabakita.

"Bi urteotan bide ona egin dugu, eta oinarri on bat jarri da TOKIKOMek aurrera egin dezan. Lehen txanpa indartsua izan da; orain egindakoa sendotu behar da eta epe ertaineko plan bat landu. Uste dut bada-goela aukera euskal hedabideak landaketan jartzeko eta horretarako oso mesedegarria izango da TOKIKOM



Mikel Irizarrek (ezkerrekoa) utzitako kargua hartu du Urko Aristik.

indartzea. Esku honetan geratzen da ontziaren lema", adierazi zuen batzar amaieran lehendakaritza utzi berri duen Mikel Irizarrek.

Kargua hartu berri duen Urko Aristiren esanetan, "Mailope bezalako

elkarte txiki baten ordezkari naizen heinean ongi aski dakit zein beharrezko den denak elkartu eta sinergiak sortzea. Eta filosofia horretan kide guztiak bat datozenez, badakit marinel guztiak norabide berdinean ari-

tuko direla eta lan erraza izango duela patroiak. Orain arte Irizarren gidaritzapean egindako bidearekin guztiz ados egonik, norabide berdinean jarraitzeko konpromisoa hartzen dut, dagoeneko abiatutako egitasmoak sendotu, eta beste ekimen berriak abiaraziz. Zentzu horretan pozik nago bereziki Nafarroan agerkari digital zein euskarazko telebista berriaren asmoak aurki gauzatu, eta trabak traba, amets izatetik errealitate bihurtzeko bidean direlako".

TOKIKOM 2012an sortu zuten 20 toki komunikabideko, eta gaur egun Euskal Herri osoko 27 eragilek osatzen dute. Formatu eta euskarri guztietako 47 komunikabideko sareak osatzen dute.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**LATAILLADE**

**ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8 , behea 943 363 348 - 609 888 021

# Gipuzkoarren %3, odol emaile izateko erronka



Astlehenean odola emateko aukera berri bat izango da, anbulategian. Argazkia: zuin.net

**H**elburua, urte amaierarako bete nahi luke Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak. Alegia, 18-65 adin tarteko herrialdeko biztanleriaren %3 odol-emaile izatea lortu nahi dute, urtean gutxienez behin edo bitan odola ematera animatzea. Boluntarioak erakartzeko Gotatanta izeneko kanpaina berria jarri dute martxan. Egitasmoari buruzko informazio gehiago: gotatanta.com atarian, Gotanta izenez Facebook edo Twitter sare sozialetan edo 943 317 091 telefono zenbakian.

Gotatanta izateko aukera dute usurbildarrek, datorren astlehenean, martxoak 3. Odola emateko hitzordua finkatu baitu, Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak. Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan.

## Hauexek dira odola emateko bete beharreko baldintzak:

- 1 - Adina: 18 eta 65 urte bitartean.
- 2 - Pisia: 50 kg-tik gora.
- 3 - Tentsio diastolikoa (baxua): 50 mmHg eta 100 mmHg artean.
- 4 - Tentsio sistolikoa (altua): 100 mmHg eta 180

mmHg artean.

5 - Pultsua: Erregularra eta 50 eta 110 pultsazio bitartean.

6 - Gizonen Hemoglobina-kopurua: 135 Gr-tik gora/litroko.

7 - Emakumeen Hemoglobina-kopurua: 125 gr-tik gora/litroko.

8 - Gizonen odol-emanaldien maiztasuna: gehienez 4 aldiz urtean.

9 - Emakumeen odol-emanaldien maiztasuna: gehienez 3 aldiz urtean.

10 - 2 odol-emanaldien arteko gutxieneko epea: 2 hilabete.

11 - Baraurik ez da odolik eman behar.

12 - Osasun normal bat edukitzea: odola eman aurretik, talde medikuak historia bat egiten du eta miaketa bat ere bai, odola emateko aukerarik dagoen ikusteko.

13 - Hepatitisa edo HIES kutsatzea errazten duten arrisku-jokabiderik ez edukitzea.

14 - Azken urtean paludismo edo txagak izan diren gune endemikoetara bidaiatu ez izana. (Hego edo Ertamerikako, Afrikako eta Asiako zenbait herrialde).

## Euskal herritartasun agiria sortu nahi du Udalbiltzak

Igande honetan beteko du berregituratu zeneko lehen urteurrena, Mertxe Aizpurua Usurbilgo alkatea lehendakari duen Udalbiltzak. Pasa den larunbatean udal hautesien bilkura egin zuten Ordizian. Bertan, datorren urteari begirako lan ildo nagusia finkatu zuen Udalbiltzak.

Azken urtean, lurralde garapenari eta kohesio sozioekonomikoari lehentasuna eman diote, aurrerantzean euskal herritartasuna izango dute jomuga. "Euskal Herritarrak gara" ekimenaren bidez landuko dute ildo hau. Martxoaren 10era arte, ekarpenak jasotzeko prozesu parte hartzaile bat burutzekoak dira udal hautesien artean, "ondoren, Udalbiltzako Nazio Gobernuak ebazpena egin eta publiko egiteko. Martxo bukatetik aurrera udaletxeetan eta hiri eta herrietan dinamikak gauzatzen hasi nahi dugu".

Ordiziako bilkuran, bideratu asmo dituzten dinamika posible hauek erezeintzukizan daitezkeen iragarri zuten. Interneten, udalek .eus domeinua hartzea euren webgunerako eta domeinu hori gizarteratu nahi dute. Bestalde, euskal ikuraren erabilera sustatu nahi dute. Eta honez gain, Udalbiltzatik berri eman dutenez, "Euskal Herritartasuna publikoki adierazteko agiria ofizial baten sorrera sustatu nahi dugu, bere izapidetzea prestatu, erabilera bermatu, bidegarritasuna... Halaber, Euskal Herrian bizi garen pertsona guztien hizkuntza, kultura eta jatorri aniztasuna bermatu nahi dugu, eta teknologia aldetik agiria interaktiboa izatea bilatu".



Ordizian egin zuten iragarpena.



# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

## “Izenik gabe 200x133”, Bartzelonako Euskal Zinemaldiko Urrezko Txapelduna

Jose Luis Zumeta margolari usurbildarraren sortze lan prozesua azaltzen duen ikus-entzuzkoak irabazi du Bartzelonako Euskal Zinemaldiko “Txapela d’Or”, Urrezko Txapela. Epaimahaia osatu duten kideen, Joel Joan (aktorea), Aina Clotet (aktorea), Marc Recha (zuzendaria) eta Jordi Ambròsen (ekoizle eta zuzendaria) esanetan, ikus-entzuzko lan sarituak, Zumetaren nortasun baliotsua eta kamera aurrean, mantso gauzatzen doan margolanaren sakoneko indarra erakusten ditu. Enara Goikoetxearekin batera, herritar batek zuzendu zuen artista usurbildarraren sortze prozesuari buruzko dokumentala: Jose Luisen alaba Monikak.

“Izenik gabe 200x133” dokumentala, otsailaren 13tik 22ra ospatu zen Bartzelonako Eus-



Jose Luis Zumeta, dokumentaleko egileekin batera.

kal Zinemaldiaren baitan aurkeztu zuen Monikak eta segidan proiektatu zuten. Dokumental hau, iazko Donostiako Zinemaldian estreinatu zen. Gerora, azaroan NOAUA!k antolatu zuen Kulturaldiaren baitan, Udalarekin batera Sutegin antolatu zen ekitaldian ikusi ahal izan zen.

Usurbilek inoizko protago-

nismo handiena izan du amaitu berri den Bartzelonako Euskal Zinemaldi honen edizioan. Oinatz Iparragirre Arregi gaztea, abarka eta txapelarekin James Bond erara jantzita, euskal ukituko traje batekin agertu baita jaialdia iragartzeko kartelean. Zinemaldi honetako irudia izan da Oinatz.

## Igeltsero ofiziala eta peoia kontratatze lan deialdiak

Usurbilgo Udalak lanpostuok betetzeko bi langile kontratatu nahi ditu, 5 hilabetez eta aldi baterako, “Usurbilgo hainbat guneetan hormigoizko adokinez eraikita eta hondatuta dauden zoladurak konpontzeko”. Hautaketa prozesuan parte hartzeko lanbide.net atarian orrialdea zabalduko da eta interesdunek martxoaren 3tik 10era eman ahal izango dute izena.

Lanbiden izen ematea ziurtatu denean, eskaera bat aurkeztu behar da Usurbilgo Udalean eta honekin batera NAN-a, lan bizitzaren kopia eguneratua (martxoaren 3 aurretiko egoera jasotzen duena) eta gida baimenaren kopia aurkeztu behar dute. Ezagupenak eta lan trebetasunak neurtzeko lanbide bakoitzeko frogak praktiko bat burutuko da.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

- Lan eskatzaile gisa Lanbide erakundearen izen emanda egotea, langabetu bezala.
- Usurbilen erroldatua egotea.
- Euskara: ahozko erabilpen egoia, 1. profilaren baliokide.
- Gidatzeko baimena izatea.
- Gainera, igeltsero ofizialak, obra zibileko zereginetan igeltsero ofizial bati dagozkion ezagutzak eta esperientzia izan behar dituzte.
- Igeltsero peoiaren kasuan berriz 6 hilabetetako esperientzia izan behar du aipaturiko lanbidean.

2 lanpostu hauetarako lehentasuna izango dute:

- Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu dutenak.
- Azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana.
- Langabezia laguntzarik ez jasotzea.
- Diru Sarrerak Bermatzeko errentaren jasotzaileak.
- 35 urte baino gazteagoa eta 45 urte baino zaharragoa izatea.
- Emakumea izatea.
- Pertsona desgaitua izatea.

## Herriko festak lotzen



Astelehenean burutu zen Santixabelak prestatzen hasteko Jai Batzordearen urteko lehen bilera. Herriko jai egunak finkatu eta jaietarako proposamenak jasotzen hasi zen, Potxoenean bildu zen taldeak.

# Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik, saritua

**B**ere ama hizkuntzan prestatu eta gainditu zezakeela jakin zuenetik argi zuen; autoa gidatzeko agiria euskaraz ateratzeko hautua egin zuen, NOAUA!ri adierazi dion moduan, "euskaraz bizi naiz betidanik" eta. Iazko apirilean eskutan zuen gidabaimena. Eta kontua ahaztuzazuean, jaso du albiste pozgarria; Buruntzaldeko udalek 2013an eskualdean gidabaimena euskaraz atera zutenen artean zozketa egin eta hamaika lagun saritu dituzte. Bakoitza 400 euroekin. Lerrootan elkarrizketatu dugun usurbildarra izan da sarituetako bat, Onintze Kamino.

## NOAUA! Pozik jasoko zenuen albistea?

**Onintze Kamino.** Ona, sekulako poza izan dut. Astea eta hilabetea poztu dit. Ondo datorkit.

## Garesti dago eta gidabaimena ateratzea?

450 euro inguru kostatzen da matrícula. Gero aparte daude tasak, BEZ-aren igoera ere asko nabaritu da. Klase praktikoa bakoitzeko ordua ere 50 eurotan dago. Aldea dago baita, zenbat klase praktikoa egiten dituzun. Ni ideiarik gabe joan nintzen eta ikasteko denbora pixka bat behar izan nuen. Azterketak ere ordaindu egin behar dira. Eskertzen dira 400 euro hauek, baina halere, gaztea izanda asko kostatzen da. Oso garesti dago. Animatuko nuke jendea zati teorikoa libretik ateratzera, azkenean asko aurrezten baituzu. 400 eurotik gora aurreztu ditzakezu.

## 400 euroko saria pizgarria izan liteke norbait gidabaimena euskaraz prestatzera bultzatzeko. Baina zerk motiba dezake?

Hemen bizi garela eta gure bizimodu euskaraz bizi dugulako. Euskaraz ikasi edo lan egiteko aukera bezala, gidabaimena ere euskaraz ateratzeko aukera behar dugu.

## Gidabaimena euskaraz atera zenezakeela jakinda, segituan erabaki zenuen.

Aukera nuela jakin nuenetik argi nuen. Eta gainera zortea izan nuen, azterketa praktikoa ere euskaraz egin ahal izan



Buruntzaldeko Udalen ekimenez, gidabaimena euskaraz atera zutenen artean zozketa egin zen eta Onintze Kamino izan zen sarituetako bat.

## ONINTZE KAMINO

**"Gogoa izanez gero, motibatzen zara eta ateratzen duzu"**

bainuen. Oso gustura, erosoago. Kasualitatez, euskaraz jakingo zuen aztertzailerak bakarretakoa tokatu zitzaidan.

## Ezohikoa. Normalean azterketa praktikoa erdaraz izaten baita?

Hori gertatzen da. Teorikoan gauzak euskaraz ikasten dituzu eta gero praktikoa erdaraz egin behar duzu. Koska hori dago. Neure kasuan zortea izan eta euskaraz atera nuen.

## Alderdi teorikoan, euskarazko materialarekin ondo moldatu zinen?

Euskarazko materiala irakurri eta erabili nuen. Testak euskaraz egin nituen eta galderak ere bai. Zerbitzua ere euskaraz jaso nuen. Hiztegitxo bat ere eman zidaten auto eskolan, euskaraz zerbaitez banekien erdarazko itzulpenekin. Baina azterketako galderekin zera pasa zitzaidan. Hasieran gutxiago ziren. Baina azkenean azterketarako galdera gehiago sartu ziren, eta galdera horiek erdaraz zeuden, euskaratzeko. Batzuk azkar eta gaizki euskaratuak zeuden, ez zen ulertzen. Baina halere, ez zidan arazorik eragin.

## Azkar amaitu al zenuen zati teorikoa?

Egoskortu nintzen, jarri eta aterako nuela. Gainera Lasartera joan behar nuen, egunero hara joan eta etorri behar nuen eta oraindik autorik ez nuen. Autobus edo bizikletan joaten nintzen, eta gogor ekin nion. Jendeak nahiago du ikastaro intentsiboa egin, bost egunetan joan eta kito. Baina liburua irakurtzea ere ez da asko kostatzen eta garrantzitsua da. Gogoa izanez gero, motibatzen zara eta ateratzen duzu.

## Zati praktikoa euskaraz ezingo zenuen prestatu?

Zati praktikoko klaseak erdaraz jaso nituen. Baina gero azterketan, aztertzailerak euskalduna tokatu zitzaidan kasualitatez. Berak galdetu zidan ia azterketa euskaraz egin nahi nuen. Eta eskertzekoa zela erantzun nion. Ondo.

## Teorikoa euskaraz landu eta praktikoa hizkuntzaz aldatzea, aldatzea handia izan al zen?

Ez da hain handia ere. Ulertzen dugu erdaraz zer esaten duten. Baina belarririk euskara hobeto sartzen zait, orduan nahiago dut euskaraz. Errazago ikasten dut. Erdaraz are eta urduritasun handiagoa izango nuke, galderak egin edo adierazterako garaian.

## Euskaraz atera nahi dutenen eskaera bada?

Usurbildar batekin atera nuen gidabaimena. Baziren gazteak. Eta gazteak oro har, euskaraz ari ziren.

## Trafiko zuzendaritzan, tramiteak erdaraz

### NOAUA! Autoeskolak eskaintzen ari diren euskarazko zerbitzuan zerbaitez hobetzekorik sumatu duzu?

**Onintze Kamino.** Auto eskolan bertan ezer ez, oso ondo. Baina Trafiko Zuzendaritzan bai. Tramite guztiak erdaraz egin behar izaten dira. Eta langile euskaldunak jar ditzakete gidabaimena euskaraz ateratzeko. Azterketa egiterakoan gainera, ez dituzu aukera berdina. Azterketa teorikoa egitera joan nintzenean, auto eskolakoak esan zidan zalantzarik baldin banuen, han zegoen langile konkretu bati galdetzeko, hark bakarrik zekiela euskaraz. Euskarazko galdera bat ezingo nion galdetu erdaldu bati. Eta hori, aztertzailerarekin egokitu zitzaidan azterketa praktikoa egitea. Autora sartzen ikusi nuenean poztu nintzen.

# Hondakinak tratatzeko azpiegitura alternatiboak, 2015a amaitzerako martxan



Zarauzko Urteta zabortegian aurkeztu zituzten eraiki asmo dituzten tratamendu plantak.

**G**ipuzkoako hondakinen kudeaketa aldatuko duen data bat finkatua dute jada; 2015. urte amaiera. Ordurako, egun irekita jarraitzen duten Gipuzkoako hiru zabortegiak itxiko dituzte, Zarauzko Urteta, Azpeitiko Lapatx eta Beasaingo Sasietako zabortegiak. Eta ordurako, martxan egongo da hondakinak kudeatzeko azpiegitura sare berria.

Akordio batekin lurperatu zuten enpresa eraikitzaileek, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Zubietan kokatu asmo zuten errauste planta. Azaroaren

**2015ERAKO PLANA**  
**“Jasotako hondakin guztiak tratatzeko azpiegituren proiektuak 131 milioi euroko kostua izango du, erraustegiak eragingo lituzkeen gastuen (400 milioi) herena”**

13an, eskua emanda irudikatu zuten adostasun hura. Eta egun haietan, gipuzkoarrok sortzen ditugun hondakinak tratatzeko azpiegitura alternatiboak eraikiko zituztela iragarri zuten. Aurrez diseinatua zegoen plangintzan jasoak zeudenak. Zarauzko Urteta zaborte-

gian, Mankomunitateko, GHK-ko eta Foru Aldundiko ordezkariak aurreko astean egindako agerraldi bidez, azpiegiturak aurkeztu zituzten.

2015. urte amaierarako, egun irekita jarraitzen duten Gipuzkoako hiru zabortegiak itxiko dituzte, Zarauzko Urteta, Azpeitiko Lapatx eta Beasaingo Sasietako zabortegiak. Eta ordurako, martxan egongo da hondakinak kudeatzeko azpiegitura sare berria. 2016a hasterako baita, lehentasun nagusi bat du Aldundiak; Gipuzkoako gaikako bilketa %60raino igotzea. Hartara, 195.000 tona gaika bilduko direla eta 130.000 tona erreusa

izango direla kalkulatzeko. Gogorarazten dutenez, “gaikako bilketa baino ekimen eraginkorragorik ez baitago hondakinak berreskuratzeko”.

Bildutako hondakin guztiak tratatzeko azpiegituren proiektuak 131 milioi euroko kostua izango du, erraustegiak eragingo lituzkeen gastuen (400 milioi euro) herena. Horietatik 71 milioi Zubietako Hondakinen Kudeaketa zentrorra bideratuko dira; beste 8 milioi euro Epeleko (Bergara) konpostatze planta eraikitzaera, eta 52 milioi gastatuko dira lur erosketetan, azpiegituren eguneraketa lanean, transferentzia estazioan eta inerteen biltegian.



**EROSKI/city**  
 kale Nagusia 10, USURBIL  
 943 361182



**ARTZABAL**  
 Baserria - Jatetxea  
 943 36 91 39  
 artzabaljatetxea.com



**TAXI**  
**24h**  
**USURBIL**  
 677 37 34 66 | Joxe  
 943 36 21 78 | Etxabe



**JUANTXO**  
 BURDINDEGIA  
 Zubiaurrenea 8  
 943 370 008



# 100 lanpostu zuzen sortuko direla aurreikusten dute Aldunditik

Toxikoak izango ez diren instalakuntza guztiok garaian garaiko Gipuzkoako erreallitera egokitu ahal izango dira. Planta malguak izango dira beraz, eta helburu nagusi bat izango dute; herrialdean sorturiko hondakinen ehuneko ehuna tratatzea. "Material birziklagarri guztiak berreskuratuko dira, gaikako bilketa bidez jasotako materia organikoa konpostatuko da eta garbitasun gutxiko materia organikoa eta errefus birziklaezina egonkortuko da".

Zabortegeiak itxi eta tratamendu planta berriak eraiki ostean, itxuraldaketa nabarmena izango du Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren mapak. Aurrerantzean, 20 Garbigune, paper eta ontzi arinentzak bi planta, 4 transferentzi estazio edota hiru konpostatze gune izango ditu herrialdeak; Lapatx, Epele eta Zubietakoa. Zubietan hain zuzen, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Zentroan bihurtuko da. Konpostatze planta nagusia kokatuko da bertan, eta jada erraustuko ez den erreusarentzat tratamendu mekaniko-biologikorako planta bat eraikiko dute. "Tratamendu mekaniko-biologikoaren bidez materiaren zati bat berreskuratuko da,



**Azpiegiturok Europako Zuzentaruak zehazturiko Hondakinak Kudeatzeko Hierarkia zorrozki beteko dutela dio Gipuzkoako Hondakinen Kontsordioak.**

gero konpostatu edo birziklatzeko, eta kenduko dira airera doazen isurkin kutsagarriak (gasak) nahiz lur azpirako doazenak (lixibatuak). Horrela, berreskuratuko ez diren hondakinak (65.000 tona) bizigabetu egingo dira, eta ez dute ez usainik ez kutsadurarik sortuko", argitu dute Aldunditik.

Planta honek izango duen tratamendu prozesua ere zein izango den azaldu dute. Lehenik, "bereizi gabeko hondakinen material aprobezagarriak berreskuratzea, tratamendu mekaniko baten bidez. Hemen metalak, beira, plastikoa, papera, egurra

eta antzeko materialak berreskuratuko dira". Hortik, 95.000 tona organiko zikin ere aterako dira. Organiko zikin hau, Zubietan bertan eraikiko den konpostatze plantan tratatuko da. "Lehortu eta egonortu ondoren 30.000 tonatara jaitsiko da. Material hau ezin da ongarri gisa merkaturatu, baina kalteetako eremuak berreskuratze edo zabortegeiak estaltzeko balioko du", Zarautzen adierazi zuten.

30.000 tona horiek, hondakin inerteen biltegietan gordeko dira. Eta GHK-tik ohartarazi dutenez, "erreus egonortu hori ez du ustelduko, ez du

usain txarrik emango, ez du lixibaturik sortuko, eta noski, ez ditu arratoiak eta kaiok erakarriko".

## Zabortegeien itxiera noizko?

- Urteta (Zarautz): 2014 abenduak 31.
- Lapatx (Azpeitia): 2015 apirila.
- Sasieta (Beasain): 2015. urte amaiera.

## Konpostatze planta berriak noizko?

- Zubietakoa: 2015. urte amaierarako funtzionamenduan.
- Lapatxkoa (Azpeitia): funtzionamenduan jada.
- Epelekoa (Bergara): 2014. urte amaierarako funtzionamenduan.

## Erreusaren tratamendu mekaniko-biologikorako planta noizko?

- Zubietakoa: 2015. urte amaieran. (oharra: planta honetatik berreskuratuko ez diren hondakinak, bizigabetu eta gordailu batera eramango dira. Gordailua 2015. urte amaierarako martxan egongo da).

## Eragin ekonomikoa

- Azpiegitura hauen kostua 131 milioi eurokoa izango da (errauste plantak 400 milioi euroko kostua zuen).
- 100 bat lanpostu zuzen sortuko dira.

## Zubietakoa, Gipuzkoako hondakinen kudeaketako erdigunea

Hondakinak kudeatzeko guneotako bakoitzean, Zubietan, Azpeitian eta Bergaran, gipuzkoarrok sorturiko hondakinen ehuneko ehuna tratatu eta ahalik eta gehien birziklatzeko instalakuntzak eraikiko dituzte:

### ZUBIETAKO HONDAKIN ZENTROA

**Gastua:** 71 milioi euro.

#### Eraikitze lanen iraupena

- Hasiera: 2014ko azaro amaieran, "proiektua osatzeko eta lursailak egokitzeko epeak" igaro ostean.
- Bukaera: 2015eko udazkenean.

### Azpiegiturak

- Tratamendu mekaniko-biologikorako planta.
- Konpostatze planta.

### Berezitasunak

- Azpiegitura moldagarriak izango dira. Garaian garaiko beharretara egokitu ahal izango dira.

### Hondakinak birziklatzeko gaitasuna

- Tratamendu mekaniko-biologikorako plantan: urtean, 170.000 tona tratatzeko gaitasuna.
- Konpostatze plantan: 20.000-30.000 tona organiko. Gaikako bilketatik jasotako organikotik

A+ kalitateko konposta egin eta ongarri gisa merkaturatuko da. Tratamendu Mekanikoko plantatik jasotako organiko zikina tratatuko da baita. Eremu hondatuak berreskuratze erabiliko da.

### EPELE (BERGARA)

Azpiegiturak: konpostatze planta. Eraikitze lanen iraupena: lanak hasita. 2015eko urtarrilean martxan egongo da. Gastua: 8 milioi euro. Hondakinak birziklatzeko gaitasuna: urteko, 10.000 tona bio-hondakin.

### LAPATX (AZPEITIA)

Azpiegiturak: konpostatze planta. Eraikitze lanen iraupena: eraikia, funtzionamenduan. Hondakinak birziklatzeko gaitasuna: 14.000 tona inguru organiko urteko.

### GORDAILUA MATERIA BIZIGABEARENTZAT

Azpiegitura: gordailua, 65.000 tonarentzat. Eraikitze lanen iraupena: 2015a amaitzerako martxan. Kokagunea: erabakitzeke, aurtan erabakiko dute. Funtzioa: gerakinentzako biltegia.

# “Ezinbestekoa da norberagandik



Miren Amuriza, Alaia Martin eta Ane Labaka kantari arituko dira martxoaren 6an Artzabalen.

**H**ala diote, jendarte parekidea lortzeko, alor honetan elkarlanean ari diren Usurbilgo Gazte Asanbladako eta Ernaiko kideek. Norbana-koa eraldatzen hastea ezinbestekoa dela parekidetasunerako bidean. Prozesu feminista abiatu du Usurbilgo gazte mugimenduak. Prozesu irekia, eta usurbildarrak bertan inplikatzera deitzen dituzte. Martxoaren 8a ate joka dugun honetan, ekimen sorta antolatuta dute Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailarekin elkarlanean. Hitzaldi, bertso-afari, erakusketa eta tailer banarekin hornitua dator, aurtengo Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna.

## Prozesu feministari ekin diozue Gazte Mugimenduan. Zer helbururekin?

**Usurbilgo Gazte Mugimendua.** Feminismoa Gazte Asanblada eta Ernaik, elkarlanean, batera landuko duten ildo da. Jendarte feminista edo parekide bat dugu helburutzat. Horretarako ezinbestekoa da norberagandik hastea eraldaketa. Prozesu feminista aurrera eramateko inizatiba Gazte Mugimenduak hartu badu ere, ez da Gazte Mugimenduko kideentzat soilik. Bertan parte hartu nahi duenarentzat atak zabalik ditugu. Guztiz irekia da. Animatu!

**“Martxoaren 8an aldarrikatzen dena egunero gauzatzea da garrantzitsuena. Emakumeok emakume gara urteko 365 egunetan eta egunero bizitzen ditugu gizarte sexista honen ondorioak”**

## Prozesuak zer eman du orain arte?

Feminismoaren aitzakian jende ezberdina elkartzea eta elkarrengandik ikastea lortu dugu, beti izaten da oso aberasgarria aniztasuna. Ekintza ezberdinak antolatu dira udatik hona: hitzaldiak eta tailerrak. Orain arte bezala, aurrerantzean, gehiago antolatzeko asmoa dugu, ikasteko asko eta iraultzeko gehiago baitugu aurretik.

## Martxoaren 8a ate joka dugu jada. Zein da egun horri begira zabaldu nahi duzuen mezua?

Nahiz eta martxoaren 8a den emakumeon eguna, bertan aldarrikatzen dena egunero gauzatzea da garrantzitsuena. Emakumeok emakume gara urteko 365 egunetan eta egunero bizitzen ditugu gizarte sexista honen ondorioak.

## Emakumeon Eguna antolatu duzue martxoaren 8aren bueltan. Zer nolako ekime-

## nak antolatu dituzue?

Gazte Mugimendutik ekimen batzuk antolatu ditugu eta Parekidetasun Kontseiluak beste batzuk. Egutegi bateratu bat ateratzea genuen helburu, elkarlanean, ekimen batzuk besteak oztopatu gabe. Azkenean, egitarau paregabea geratu zaigu! Bertso afaria, hitzaldi-tailerra, kontzertuak, autodefentsa tailerra...

## Emakumeek plaza publikoa hartzea sustatzeko ekimenak antolatu izan dira aurretik. Zuek egunotarako antolatu dituzue hainbat hitzordu. Animatu herriko emakumeek ekimen hauetara.

Aurreko ekimenetatik azpimarratu nahi duguna aniztasunaren aberasgarritasuna da. Azaroak 25aren inguruan (emakumeon aurkako indarkeriaren kontrako eguna) antolatutako hitzorduetan eremu ezberdinetako jendea biltzea lortu genuen. Parekidetasun Kontseilutik antolatutako batukada feministan ere, jende mordo biltzekoak eta izugarria izan zen lehenengo saioa. Guztiok gelditu ginen gehiagorako gogoz eta lotsatienak ere prest geunden plazara ateratzeko! Oraingoan ere horixe da gure apustua, aniztasuna. Lotsak albo batera utzi eta batzen gaituen horri eman behar diogu garrantzia.

## Egitarau oparoa

### Martxoak 6, osteguna

21:00 Bertso afaria Artzabalen:

■ Bertsolariak: Miren Amuriza, Ane Labaka eta Alaia Martin.

■ Gai jartzailea: Amaia Agirre.

■ Afarirako txartelak: 15 eurotan salgai Txiribogan eta Artzabalen. 70 laguntzako lekua.

■ Menua: ongietorri aperitiboa, gula eta otarrainxka entsalada epela, entrekota goarnizioarekin, eta etxeko pantxina txokolate beroarekin. Kafea eta edaria barne.

Antolatzailea: Parekidetasun Kontseilua.

### Martxoak 7, ostirala

■ 22:00 Hitzaldia Usurbilgo Gaztetxean: “Maitasun erromantikoa eta mikromatxismoak”. Hitzalaria: Ainara Santamaria.

Antolatzailea: Gazte Mugimendua.

### Martxoak 14-15, ostirala eta larunbata

■ Ostirala: 17:00-20:30.

■ Larunbata, 9:30-14:00.

Potxoenean autodefentsa feminista tailerra emakumeentzat, Maitena Monroyrekin. Doan. Izen ematea, aurrez: parekidetasuna@usurbil.net. Antolatzailea: Parekidetasun Kontseilua.

## Oharra

Egitaraua behin behinekoa da. Martxoaren 8an ekimenen bat antolatu liteke.

# hastea eraldaketa”

**Emakumeen erabakitze eskubidea auzitan da, abortuaren lege berria dela eta. Zer ikuspegi duzue halako legeez eta honen inguruan gertatzen ari denaz?**

**Usurbilgo Gazte Mugimendua.** Inork ezin digu gure bizitza eta gorputzarekin zer egin behar dugun esan. Gure gorputza geurea da eta geurea da erabakia. Erabakitzeko eskubidea bermatu beharra dago, izan ere, abortuaren lege berriarekin eskubide horrez gain, gure segurtasuna, abortatze kasuan baldintza egokiak izatea eta beste hainbat eskubide urratzen zaizkigu. Finean, abortatu nahi duenak abortatu egingo du, aberatsa dena atzerrira joango da bere segurtasuna lehenetsiz eta besteek euren bizitza arriskuan jarri beharko dute.

**Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an. Langabeziak emakume aurpegia izaten jarraitzen du, bai Usurbilen eta baita hemendik kanpo ere. Eta lan baldintzetan parekidetasunik ez oraindik. Nola ikusten duzue emakumea egungo lan munduan?**

Gizarte honetan emakumeok prekaritatean bizitzera kondenatuta gaude eta esan bezala, langabeziak emakume aurpegia izaten jarraitzen du. Hor goian aipaturiko “lan” edo en-



“Uste baino gehiago egin dezakegu guztiok”, Gazte Mugimendukoek esana.

## GAZTE MUGIMENDUA

**“Ordua da begiak ireki eta guztiok parte hartzekoa, iraultzekoa. Parekidetasuna edota berdintasuna ahotik egunerokotasuneko txoko guztietan praktikan jartzekoa”**

pleguaz gain, aitortuak ez diren beste “lan” batzuk ere badaude, maitasunaren izeanean doan egiten direnak. Zaintza lanak, etxeak... (hau da, 0. sektorea) emakumeon gain erortzen dira “biologikoki” egokitu balitzaizkigu bezala. Gizarteak orain arte bezala funtzionatzeko beharrezkoa da 0. sektorea dei-

turikoa ikusezin izatea. Ordua da begiak ireki eta guztiok parte hartzekoa, iraultzekoa.

Parekidetasuna edota berdintasuna ahotik egunerokotasuneko txoko guztietan praktikan jartzekoa.

**Parekidetasunerako bidean aurrera egiteko, herritarrek zer ekarpen egin dezakete egunerokoan?**

Uste baino gehiago egin dezakegu guztiok. Aldaketa handienak norbanakotik hasten dira, egunerokotasunean hain errotuta ditugun jarrera horiek iraultzetik. Hitz egiteko moduagatik hasi eta ekintza txikiek jarraituz. Bidea luzea da.

**Besterik esan nahiko zenukete?**

Azkenik, feminismoaren inguruan dagoen mamua uxatu nahiko genuke. Jende askok uste du feminismoak matxismoari txanpon berarekin erantzuten diola eta ez da horrela. Hori argitu nahiko genuke.

Feminismoak helburutzat pertsona askez osaturiko jendarte parekidea du. Ez du inongo momentuan emakumea gizonaren gaineratik jartzeko. Jendeak feminismoa henbrismoarekin nahasten du. Kontuz! Oso gauza ezberdinak dira biak.

## Larraitz Lazkanoren erakusketa, Artzabalen

**M**artxoaren 8an giroturiko artelanak jarriko ditu erakusgai margolari nafarrak, “Emakumeen arteko begirada sinergikoak” erakusketan. “Larraitz Lazkanoren lanak, Euskal Herritar emakume baten eta Arabiar kulturako herri anitzeko hain-

bat emakumeen arteko elkar begirada sinergikoa proposatzen digu. Koloreak, formak eta testurak pikturizatzen, plano idealizatutik at, elkarren arteko gertutasuna azpimarratzeko”. Arabiar emakumeen idiosinkrasiarenganako faszinazio eta jakinmina. Gaztarotik hasi zen

Larraitz Lazkano Arabiar munduarekin hartu-emanetan, “eta segituan berpiztu zitzaion gertutasunaren sentimendu arabikoa. Eta emakumeen prismaren posiziotik hasi zen bere margo istorioa erakitzen, espresio izoztuekin soinu-rik gabeko elkarrizketa publikoak

eraikitzen. Kontestu guztietatik islatzen ditu bere pertsonaiak giza biluztasun une bat lortzearren. Apirilaren 16ra arte ikusgai Artzabalen.

Bere hainbat artelan, helbide honetan ere ikus daitezke:

larraitzlazkano.blogspot.com.

# Larunbatean, zatoz Erdi Aroko festara!

Zenbait herri eragileetako ordezkariak NOAUA!ko egoitzan bildu eta mozorro festarako gaia erabaki zutenetik, martxan jarri zen inauterietarako makineria guztia. Prestaketa lanetarako astia bazela zirudien, baina konturatzerako denborak aurrera egin du. Hemen dugu larunbata, Inauteri Festa, aurten, denboran, mendeetan atzera egiteko. Erdi Aroan murgilduko gara eta martxoko lehen egunean.

Aurtengo jaialdia elkarlanari esker gauzatu da; NOAUA!, Usurbilgo Gazte Asanblada, Gaztelekua, Erraldoien Konpartsa, Tipi-Tapako tabernen edota Udalaren artean.

Eta bakoitzak bere ekarpena egin du. Inauteri Festa egunez girotuko duten kalejiretako bat, lehena, larunbat eguer-



Mozorro gisa, Erdi Aroko jolas hau txarra ez. Hori bai, ordu txikietan peligro handia izan dezake. Argazkia: Jone Abad.

dian erraldoiekin ospatuko dena, Erraldoien Konpartsak. Iluntzekoa, Burrunbazale txarangarekin gaztetxetik abiatuko dena, NOAUA!koen eskutik.

Gaztelekukoek karaoke festa antolatu dute arratsalde partearako, 12-16 urte arteko herriko gazteentzat. Eta indarrak hartzeko afaria, Usurbilgo Gazte-

txekoen esku aurten. Afalaurretik eta ondoren, Inauteri Festan murgilduko diren beste guneak Kaxkoko tabernak izango dira.

## Inauteriak 2014

Martxoak 1,  
**ERDI AROA**  
usurbilen



**12.00** Udaletxetik abiatuta, erraldoi txiki eta handien **kalejira bikaina**, Sultzaïneroek lagunduta.

**16.30** Gaztelekuan **Karaoke festa**. (Mozorrotuta etorri!!!)

**18.00** Gaztetxetik abiatuta, **Burrunbazale txaranga** herriko kaleetan barrena.

**21.30** **Afaria Gaztetxean**  
(13e, txartelak aldeztu aurretik NoaUA!n, Irratin eta Txiribogan. Mozorrotuta joan beharko da eta ez da onartuko txartelak gabe joatea)



Laguntzaileak:  
Usurbilgo gazteak

## Inauteriak eta Tipi Tapa, asteburu berean

**M**artxoko lehenengo, asteburu mugitua izango dute Hurbilago Elkarteko kide diren Txapel-dun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernek. Larunbatean Erdi Aroko Inauteri Festan murgilduko dira eta biharamunean, Tipi-Taparen hamahirugarren edizioa ospatuko dute. Asteburu honi begirako prestatetetan aritu dira tabernariak; eurak Erdi Aroz nola mozorrotu eta taberna ere nola dekoratu, lanotan.

Emaitza, martxoaren 1ean ikusi ahal izango dugu. Inauteri Festa egun horretan, gogoan izan, bi kalejira ospatuko dira; lehenengoa eguerdi partean, erraldoiekin eta bigarrena iluntzean, Burrunbazale txarangako kideekin. Bi kalejiren gelto-ki izango dira Tipi-Tapako zazpi edaritegiak.

### OILASKO PINTXOAK, AJEA GAINDITZEKO

Ohi bezala, goizaldeko ordu txikiak arte luzatuko da martxoaren 1eko Inauteri Festa. Zazpi tabernok, ordu gutxira prest beharko dute guztia, biharamunari ekiteko; biharamunean, martxoaren 2an, Tipi-Tapa ekimenaren hamahirugarren edizioa ospatuko baita.



Burrunbazale txarangaren kalejira Tipi-Tapako zazpi tabernetatik igaroko da.

### INAUTERI AFARIA

**“Otsailaren 26a zen Inauteri Festako afaritarako txartela erosteko azken eguna. 13 eurotan salgai dira NOAUAIn, Txiribogan eta Irratin”**

Oraingoan, egitasmo honen partaideetako sukaldeetatik oilaskoz eginiko pintxo goxo askoak zerbitzatuko dituzte. Ohi bezala, edari eta guzti 2 euroren truke. Hilero moduan, martxoko edizioan ere, 150 euroko erosketa balea zozketatuko da, Tipi-Tapa txartela behar diren zazpi zigiluekin osatu eta zozketarako kaxetan utzi dituzten herritarren artean. Saritua, martxoko lehen

igandean 15:00etan Bordatxon ospatuko den zozketan jakinaraziko da. Gainerakoek, txartelak ondo gorde apirileko Tipi-Taparako. Inauteri Festarekin, eta Tipi-Tapa egitasmorekin, atsedean hartzeko tarte handirik ez dute izango tabernariak, martxoko lehen asteburuan.

### AFARIA, GAZTETXEAN

Afaritarako txartela eskuratu duzuenok beraz ez ahaztu; mozorrotuta agertzea eta txartela eskutan eramatea. Paella, solomoa eta postrea, datorren Inauteri Festako menua. Txartela esku artean duzuenok, kontuan izan; larunbat iluntzean Burrunbazale txarangakoekin Kaxkoan ospatuko den kalejira, Usurbilgo Gaztetxean amaituko dela afalorduan.

### Inauterietako agenda

#### OTSAILAK 28 OSTIRALA

##### Udarregi Ikastola:

Haur Eskolan: mozorrotuta dantza egingo dute gelan eta 2 urtekoak Eguneko Zentrora bisitan joango dira.

10:00 Lehen Hezkuntzako ikasleen desfilea.

11:15 HH, LH eta DBHko ikasleen emanaldia Oiardon.

##### Aginagako Eskola Txikia:

14:30-16:00 Kalejira, txarangaz mozorrotuta. Ondoren, txokolatada.

##### Zubietako Eskola Txikia:

15:00 Ikasle eta irakasleek gurasoekin kalejira, txarangaz mozorrotuta; Alamandegi, frontoia eta Barazarretik barrena. Eskolan amaituko da.

#### MARTXOAK 1 LARUNBATA

12:00 Erraldoi txiki eta handien kalejira, dultzaineroek lagunduta.

16:30 Karaoke Festa Gaztelekuan (Mozorrotuta etorri!!!).

18:00 Burrunbazale txarangarekin, kalejira Usurbilgo Gaztetxetik abiatuta.

21:30 Afaria Usurbilgo Gaztetxean. Ezinbestekoa mozorrotuta agertzea. Txartelak salgai 13 eurotan, NOAUAIn, Txiribogan eta Irratin, otsailaren 26ra arte.

## Bezperan, ikasleen txanda

**U**darregi Ikastola, eta Zubietako zein Aginagako Eskola Txikiak, Usurbilgo Inauteri Festa egunaren bezperan ospatuko dituzte euren jaialdiak, ostiral honetan, otsailaren 28an. Ekimen honen atzean dagoen elkarlana nabarmentzen dute ikastolatik.

"Ikasleek eta irakasleek ikuskizun honetarako prestatzen ematen duten

denbora oso baliagarria izaten da guztiontzat, plastika, musika, dantza, koreografia eta garrantzitsuenak, antolaketa, guztion lana izaten baita. Urteko une berezi bat da Inauteria eta Udarregi ikastolako ikasle eta irakasle guztiok hartzen dute parte ospakizun honetan, baita Udarregiko txikienean ere, haur eskolakoek, beren eraikinean ospatzen dute egun berezi hau", berri eman dute.

### Otsailak 28 ostirala

- HH 3-5: zaku eta buruko koloretazko kukurutxoekin.
- LH: itsasoz. Soroslez, piratez...
- DBH 1,2,3: komiki-pertsonaiez.
- 2 urtekoak, Eguneko Zentrora bisitan joatekoak dira.

### Txarangak, Aginagan eta Zubietan

Eskola Txikietan ere izango da mugimendua, otsailaren 28an. Mozorro festarako gaia erabakia dute, bai Zubietan, baita Aginagan ere; txaranga taldeak osatuko dituzte. Aginagan, ikasle, maisu eta gurasoak kalejiran irtengo dira bazkalostean, musika instrumentu eta jantzi koloretsuekin. Gero, txokolate jan gozoa izango dute. Zubietako Eskola Txikiok ere, txarangaz mozorrotuta desfileatuko dute bazkalostean.

# Haur Eskolakoak, herritik paseatzen



“Negua izan arren, kalera irteteko aukera izaten ari gara, a ze zorrea!”.

**K**aixo lagunak, hemen gatoz berriz ere zuekin lerro batzuk tartekatuzera.

Dakizuen bezala, haur-eskolako lagunak herritik paseatzera joaten gara. Negua izan arren, kalera irteteko aukera izaten ari gara, a ze zorrea!!! Ahal dugun guztietan, soka hartu eta hortxe abiatzen gara, oiloei eta ardiei bisitak ezinbestekoak dira!! Urrutitik sumatzen gaituzte, eta guregana hurbiltzen dira... Ogi goxoa ema-

**HAUR ESKOLA**  
**“Lore biltze horretan buru belarri gaudela, sorpresaaa! Zakur kaka plastarekin egiten dugu topo!! Goitik behera zikintzen gara! A ze kiratsa!”**

ten diegu eta!

Azkenaldian, azokara ere pare bat bisita egin ditugu eta hainbeste gustatzen zaizkigun olibak erosi eta frontoian jan ditugu.

Gehienetan parkeetara joan nahi izaten dugu. Ederki ibiltzen gara gora eta behera, korrika, zanbuluan... Eta nola ez inguratzen dituzten belardietan!! Lore polit-politak egoten dira bertan, asko gustatzen zaigu hauek biltzea eta usaintzea. Ummmm!!!! Barru-barruraino sartzen zaigu baita beraien polena ere... Atxiss!! Atxiss!!

Askotan, ezin dugu Usurbilgo zelai zabal hauetaz, guk nahi bezain beste gozatu!! Gure lore biltze horretan buru belarri gaudela, sorpresaaa!!!! Zakur kaka plastarekin egiten dugu topo!! Goitik behera zikintzen gara!! A ze kiratsa!!!

Tipi tapa espaloitik goazela ere, laguntxo batzuek kaka zapaldu zuten, ze nazka! Ze usaina! Eta gainera ezin oinetakoetatik kendu!!! Pppuuua-aggg!!!!

Fabore handia egingo ligu-kete jabeek, txakur kaka horiek jasoko balituzkete eta bestela jar diezaietela parde-

la!!!! Mila esker eta muxu handi bat!!!!

**Haur Eskola**

## Eskubaloi selekzioarekin entrenatzeko deituak

**Martxoak 1, larunbata**

9:45 Jubenil neskek Donostiako Gaska Kiroldegian: Ane Encina, Olatz Uli, Natali Izagirre, Maider Zubelzu, Paloma Huguet eta Leire Furundarena.

9:45 Infantil neskek Oiardo Kiroldegian: Enara Egizabal, Naia Marcos eta Maria Eloseggi.

11:15 Kadete neskek Oiardo Kiroldegian: Estitxu Berasategi, Ane Irazabal eta Eider Makazaga (infantil mailan).

11:45 Kadete mutilak Donostiako Gaska Kiroldegian: Unai Lejardi.

**Martxoak 2, igandea**

9:45 Infantil neskek Oiardon: Enara Egizabal, Naia Marcos, Maria Eloseggi.

10:45 Kadete neskek Ordiziako Majori Kiroldegian: Estitxu Berasategi, Ane Irazabal, Eider Makazaga (infantil mailan).



“Gehienetan parkeetara joan nahi izaten dugu”.

## III. Bander-Karolo memorialean

A Ititoy probaren ostean, III. Bander-Karolo memorialean parte hartu zuten hiru usurbildarrek; Harkaitz Iparragirrek, Andoni Udabek eta Imanol Zarautzek, otsailaren 15 eta 16ko asteburuan. Mendi eskiko Euskal Herriko banakako eta kronoigoera txapelketak jokatu zituzten. NOAUA!ri berri eman diotenez, "larunbatean Belaguako inguruetan (Lakora mendiaren inguruan) egin zuten lasterketa eta 1.700 metro desnibel positiboekin egin behar izan zieten aurre eskizatzailak. Ibilbide oso polita ezarri zuten eta sei igoera egin behar izan zituzten partehartzailak. Hainbat igoera, mendiko ertz eta korredo-reak pasa ostean hiru usurbildarrek ibilbidea amaitzea lortu zuten. Eguraldia eta elurraren baldintza onak baliatuz jaitsiera politak egin zituzten, bezperan, elur pixka bat egin baitzuen eta ibilbide zoragarria geratu zen".

### Karoloren omenez

"Igandean berriz, Lintzako aterpetxetik (Paso del caballo deituriko ingurutik) Gamuetarainoko kronoigoera egin zen, 970 metro desnibel positiboa gainditu behar zelarik. Ibilbide gogorra bezain polita izan zen eta berriro eguraldiak lagun, egun polita pasa zuten. Igoera ez zen teknikoa baina bai malkartsua eta egindako denborek erakusten



Argazkian dira Harkaitz Iparragirre, Imanol Zarautz eta Andoni Udabe.

dute egindako esfortzua. Asteburu ederra pasatzeaz gain, Karolo omentzeko (2013ko uztailaren hil zen mendiko istripu batean) modurik onena izan zen. Berak nahi zuen moduan Euskal Herriko txapelketa bat berak nahi zuen lekuan antolatuz eta gozatuz. Euskal mendizale federazioak ere bere laguntza eskaini zuen memorial hau antolatzeko orduan eta bertan izan ziren".

### Udaberri Txapelketa

Otsailak 28 ostirala, 20:30 Aginaga  
Paleta goma nagusiak 2 maila:  
Usurbil-Alde Zaharra 1  
(Josu Arruti - Xabier Murua)

### Paleta goma nagusiak 1 maila:

Usurbil 2-Aia  
(Xabier Errasti - Haritz Urdanpilleta)

### Futbola

Inauteriak tarteko, ez da neurketarik.

### Eskubaloia

Inauteriak tarteko, ez da neurketarik.

### Eskubaloia, hitzaldia

Eskubaloiko Euskal Federazioak, Usurbil KErekin batera hitzaldia antolatu dute ostiral honetarako, 19:00etan Potxoenean. Presio egoeretan erabakiak hartzearen inguruan jardungo du kirol jarduera honetan aditua den Ainhoa Azurmendi psikologoa. Epaileei zuzendua egon arren, jokalariei eta entrenatzaileei interesekoa ere izango dela iragartzen dute.

## Datorren astean, Belate-Arraras mendi irteera

GR 12 edo *Euskal Herriko ibilbidea* delakoa zeharkatzen duen ibilbidea da. "Martxoaren 9an, Belatek Arrarasera doan zatia ezagutzeko aukera izango dugu. Elzaburuko galtzada, eta Ultzamako basoak zein pagadiak zeharkatuko ditugu", Andatzakoek aditzera eman dutenez.

### Martxoak 9 igandea, goizeko 7:00etan

- Irteera: Oiardo udal kiroldegitik
- Garraioa: Autobusez
- Ibilbidea: 23 km (6h00m).
- Izen ematea: Andatza MKTko 2095 5069 07 1068489805 kontu zenbakian (Kutxabank).

- Martxoaren 5a baino lehen.
- Prezioa: Andatzako bazkideek eta langabeteek: 12 euro. Gainontzekoek: 15 euro.
- Plaza mugatuak. Lehenetsuna Andatza MKTko kideek izango dute.
- Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo da.
- Janaria norberak eraman behar du.
- Edaria Andatza MKTak eramango du
- Info gehiago: [www.andatza.com](http://www.andatza.com)

### 2013ko irteerak, bideo batean jasoak

Hainbat bazkideek eskatu ondoren, 2013. urtean Andatza Mendi Kirol Taldeak antolatutako mendi irteeren inguruko bideoa ikusgai ipini dute andatza.com web orrian. QR kode honen bitartez, zure mugikorrean ikus ahal izango duzu.



Belateko paraje ederretan ibiliko dira martxoaren 9an. QRarekin, 2013ko irteeren bideoa ikus daiteke.

tza.com web orrian. QR kode honen bitartez, zure mugikorrean ikus ahal izango duzu.

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
[izagirrelektrizitatea@hotmail.com](mailto:izagirrelektrizitatea@hotmail.com)  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**Patri Jatetxea**  
  
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berritua. Tel. 699 680 265. 135.000€.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000€ e. 617 972 350.

Atiko batsalgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpenean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalfakzioa, parke... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbarra handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Sanesteban kalean pisua alokairuan. 3 logela, sukalde-egongela eta balkoia. Prezioa: 500 euro. Tel. 652 741 833.

Santuenean, diseinu polita eta berritua. 600€. 2 hilabeteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Lasarten, Zumaburu auzoan, lokal bat alokatzen da. 150€ hilabetean. Erreforma txiki bat behar du. Tel. 687 348 223.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

"Logela bat alokagai. 250 euro + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtariletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gasu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastuak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

**MOTORRA****salmenta,****garajeak**

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratuak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratukoa. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781 cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta

kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketara eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketara industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketara lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest: LHn ingeleza, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxillergoan ingeleza, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu internazional bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Erzain laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest

nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrek eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli\_ireth@hotmail.com

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzailer moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrek ematen ditut edozein irakaskaietan. Esperientziaduna. Ordu-tegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaintzeko nitzuke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gainxo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nitzuke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udan zehar goizez zein arratsaldean. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nitzuke goizez zein arratsaldean. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.



**Zorionak Kattalin!!**  
Oso ondo pasa zure egunean Agiñako

eskolako partez. Muxu handi bat!!



**Zorionak Nerea eta Julene!!**  
Ondo pasa

zuen eguna eta muxuak familiaren partez.




**Zorionak Maitane eta Sara!!!**  
Martxoaren 2an

6 urte beteko dituzue. Muxu handi bat, Lorea eta etxeko guztien partez.



**Zorionak Irati!**  
Martxoaren 2an

bi urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko partez.



**Zorionak Ekai!**  
Bi urte bete

dituzu!! Muxu potoloak Araia, aitaxo eta amatxoren partez.



Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

### Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzordua astelehenera 18:00-20:00)

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenera ostiralera. 635742503

### BESTELAKOAK

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Mahaspildegijelkartean bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kilo. Bitartekari rikgabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suak salgai. Bi urte ditut eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talle, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Telebista salgai, Sony, Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Erosi gasolina sorgailu elektriko, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebista, patinetek, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00 artean.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arretea	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

## Goardiako farmaziak otsailak 27-martxoak 9

<b>Osteguna</b>	<b>27</b>	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
<b>Ostirala</b>	<b>28</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Larunbata</b>	<b>1</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
<b>Igandea</b>	<b>2</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
<b>Astelehena</b>	<b>3</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
<b>Astearte</b>	<b>4</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
<b>Asteazkena</b>	<b>5</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

<b>Osteguna</b>	<b>6</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Ostirala</b>	<b>7</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
<b>Larunbata</b>	<b>8</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Igandea</b>	<b>9</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

# Agenda

otsaila/martxoa

## 28 ostirala

- **Inauteriak: ikasleen ekitaldiak.** Xehetasun guztiak 12-13 orrialdeetan.
- **Elkarretaratzea, presoek eskubideen alde.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 1 larunbata

- **Inauteri Festa.** 12:00 Erraldoi txiki eta handien kalejira, dultzaineroek lagunduta. 16:30 Karaoke Festa Gaztelekuan. 18:00 Burrenbazale txarangarekin, kalejira gaztetxetik abiatuta. 21:30 Afaria Usurbilgo Gaztetxean.

## 2 igandea

- **XIII. Tipi-Tapa** goizetik 15:00 arte. 150 euroko bale zozketa, 15:00ak aldera Bordatxon.
- **Gure Esku Dagoren informazio mahaia** frontoi inguruan, 12:00etatik aurrera.
- **Ahmed, Alhanbrako printzea** filma Sutegin. 17:00h. 3 euro, egunean bertan.

## Solasaldia, preso eta iheslariak konponbiderako eginiko ekarpenez

Iazko ekainaren 15ean Euskal Iheslari Politiko-en Kolektiboak eta abenduaren 28an, Euskal Preso Politikoaren Kolektiboak urte luzeetako gatazka politikoaren konponbiderako bide-orriak ezagutzera eman zituzten. "Bi ekarpen horien dimentsio politikoa, bertan planteatutako hainbat gaiet buruzko zehaztasunak, orain artean jorratu ez dituzten bideen planteamenduz galderak egiteko eta argitasunak izateko" solasaldia antolatu du Aitzaga Elkarteak, martxoaren 6rako, 19:00etan Sutegin. Kazetari batek gidatuko duen saioaren baitan, herritar batek parte hartuko du; egun, Iheslari Politikoaren Kolektiboko mintzakide den Xabier Miguel Ezkerrak. Eta berarekin batera; Juan Karlos Ioldi preso ohi eta Harrera taldeko kideak; eta Amaia Izok, abokatu eta Sortuko bozeramaileak. Solasaldi irekia izango denez, galderak egiteko aukera egongo da.



Xabier Miguel Ezkerrak urteak egin ditu herritik kanpo. Martxoaren 6an Sutegin izango da.

### Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea, otsailaren 28 honetan, hilabetezko azken ostirala baita. Iluntzeko 20:00etatik aurrera mobilizatzeko deia egina dago, Mikel Laboa plazan.

### Gure Esku Dago giza katerako izen ematea

Ekainaren 8an ospatuko den erabakitze eskubidearen aldeko giza-katerako izena eman ahal izango da igande honetan. Usurbilgo Gure Esku Dago bilgunea informazio mahaia jarriko du, eguerdiko 12:00etatik aurrera frontoi inguruan. Gogoan izan, giza-katean parte hartzeko norberak, Durango eta Iruñea lotuko dituen ibilbideko metro bat erosi beharko duela, 5 eurotan. Usurbilen 400 herritar biltzeko erroka finkatua dago.

### Datozenak

#### Euskal Herria-Korsika topaketa iragarri du Kantu Taldeak

Bost urte bete berri dituen Kantu Taldeak antolatu du ekimena martxoaren 13 eta 14rako, Iparra-Hegoaren laguntzaz eta Usurbilgo Udalak babestuta:

#### Martxoak 13, osteguna

19:30 Hitzaldia Sutegin: "Korsika. Gaur egungo egoera politikoa, soziala eta kulturala". Sarrera, doan.

#### Martxoak 14, ostirala

19:30 Kantu jaialdia Sutegin, L'Arcusgi korsikar musika talde polifonikoaren eskutik. Sarrerak aurrez eskuratu ahal izango dira; 5 eurotan, Lizardin. Edo egunean bertan, 10 eurotan.

21:30 Kantu-afaria Iruin sagardotegian, L'Arcusgi taldekoekin eta Kuxkuxtu txarangarekin. Txartelak salgai: martxoaren 9ra arte, Lizardin eta Artzabalen. Prezioa: 25 euro.



L'Arcusgi taldea arituko da martxoaren 14an Iruinen egingo den kantu afarian.

### Zinea euskaraz: igandean, Ahmeden abenturak

Neguan zehar, heldu nahiz gaztetxoentzako euskarazko filmak eskaini dira Sutegin. Neguari begira antolatu zen zikloa amaitzear da.

Haur eta gaztetxoei zuzenduriko azken filma igande honetan eskainiko da: "Ahmed, Alhanbrako printzea", 17:00etan Sutegin.

Eta datorren astean, martxoaren 9an igandea, helduei zuzenduriko azken filma: "Zorion perpektua".

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**USURBIL AUTOAK**  
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALTAMTA

**Ford** **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**  
 Zumartegi industrialdea **943 36 10 79**

# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2013 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2013ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

# INAUGURAZIOA!

MARTXOAK 7, OSTIRALA

USURBILGO

## IRATXO TABERNA

19.00etatik 21.00etara inaugurazioa  
21.30etan bakarriketa kantatuak  
eta inprobisatuak

eta ondoren...

DJ-ak!

Zatoz gu  
ezagutzera!!

Bordaberri 5, Usurbil